

Sándor Márai, *Eszterren ondarea*.
Igela argitaletxea. Itzultzailea: Ander Irizar

Koldo Biguri

Sándor Márai fenomeno literario bat izatera iritsi da mundu osoan denbora gutxian, idazle ahaztuen artetik berreskuratua izateko zortea izan ondoren; Roberto Calasso idazle siziliarrari zor zaio, antza denez, zorte hori, klasiko ahaztu horien berrargitalpenak ateratzen zituen argitaletxe frantses baten katalogoan guztiz ezezaguna zitzaien idazle honen izena aurkitu eta haren obra ezagutu nahi izan baitzuen; bai eta berarengan ikusi ere hemeretzigarren mendeko idazlerik handienen obren pare jar zitezkeela Márairen liburuak. Hungarian, 30eko hamarkadan, nahikoa ospea izan zuen, baina komunistek literatura burgesa izateagatik debekatu egin zituzten haren obrak eta, besterik gabe, munduak ez zuen haren berri izan, kasualitate hutsak nahi izan duen arte. Geroztik, Europa guztian arrakasta handia erdietsi dute haren liburuek, eta hizkuntza askotara itzuliak izan dira; baita euskarara ere, lehendik ere bai baikenuen Xabier Olarrak itzuli eta argitaratutako *Azken hitzordua* (bide batez esanda, hungarieratik itzulia ez denez, komeniko litzateke argitaletxeak nonbait argitzea zein hizkuntzatako edizioak erabili diren).

Eleberri honetan ere biziaren gorabeherak denbora luzez banatu dituen bi pertsona aurkitzen ditugu, eta elkartze horren inguruan harilkatzen da kontakizuna. *Eszterren ondarea* honetan, emakumea da bere istorioa kontatzen diguna, sakontasun eta doitasun handiz idatzita uzten dituen gogoetekin; eta horrela jakiten dugu nola hainbat urte lehenago Lajos izeneko gizon bizizale “ipurtarin, desleial eta iheslari” batekin maiteminduta egon arren, gizona haren ahizparekin ezkondu zen, Eszter maitatu arren; eta hogeitau urte elkar ikusi gabe igaro eta gero, Lajos etxera etortzen zaio, aspaldi alargundu ondoren, baina ez, Eszterrek espero nahiko lukeen bezala, biziak zor zion zoria itzultzeraz, baizik eta Eszterri bere ondaretik gelditzen zaion azken gauzaz jabetzera, bere etxeaz, alegia; eta Eszterrek etsipenez onartuko du Lajosek eskaintzen dion kontratu hotza, bete behar den bere patua delakoan.

XX. mendeko lehen hamarkadetakoa Europa erdiko burgesia txiki gainbeheratuari buruzko istorio honetan, emakume protagonistaren pasibotasun eta jasankortasuna azaltzen zaigu modu aztoragarrian deskribatuta, hemeretzigarren mendeko literaturaren oihartzunekin. Baina ez da Eszter soilik; Lajos alaba ere aitarentzat bizi da. Bi emakumeek beraien bizitza sakrifikatzen diote aita edo senargai-ohi izandako gizonari, hori balitz bezala beraien biziari zentzua ematen dion bakararra. Alabak ere maite ez duen gizon batekin ezkondu behar du “aita salbatu” ahal izateko, dituen zorretatik salbatu ere; eta gauza bera egin beharko du Eszterrek ere, bere ondare bakararra den etxea gizonari utziaz.

Gaur egungo ikuspegitik, erabat atzerakoia irudituko zaigun emakumearen menpekotasun eta pasibotasun horren adibide literario bat dugu liburu honetan, baina idazleak ez du inolako jarrera kritikorik erakusten, kontakizun guztia Eszterrek idatzitako oroitzapen soilak direlako. Adibidez, Lajos alabarekin elkartzen denean haxe bururatzen zaio: “Zure alaba izan zitekeen! Zure alaba, zure bizitzari zentzu osoa emango ziona!”. Eta zer esanik ez, emakumeentzat gizon arriskutsu baina lilugarria den Lajos horrek ere antzeko pentsamoldea du emakumeen rolaz, esaten duenean “Ezagutu ditut emakume benetan heroikoak, gizon baten atzetik Siberian barrena joateko ere gai izango zirenak; emakume zoragarriak, niri laguntza ematen jakin zutenak eta bizitzako bakardade amaiezina tarte batez uxatu zidatenak”; edo “Maitasuna emakumeen kontua da. Horretan bakarrik nabarmentzen zarete”. Eszterren

kasuan gizon arbuiagarri baina lilurutzen dakien horrekin duen (edo izan ez duen) harremana da bere biziari esanahia eman diezaiokeen gauza bakarra, eta horrexegatik onartuko du egokitu zaion patua, hasitako gauzek beren bukaera eduki behar dutelako. Jarrera heroikoa garai hartan, eroa gaur egun, emakume bati ondarea kendu ez ezik, hondamenera eraman ere eramaten duena.